

56.ZENBAKIA.2024

ELKARRIZKETA | **Nekane Errasti** | Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritzako koordinatzailea

“Berrikuntzaren fokoa gizartea eraldatuko duten profesionalak hezten jartzen dugu”



Zenbakia
BI ELETARA
Nº BILINGÜE



Zenbakia
EUSKARAZ



Ejemplar en
CASTELLANO

euspot XIII.

EUSKARAZKO
SPOT
LEHIAKETA
2024

Aitzindaria
Euskal
Herrian

euspot.eus



TELEFONO MUGIKORRAK ETA ADIN TXIKIKOAK

12 URTEKO SEME-ALABAK MUGIKORRA ESKATU DIE GURASOEI. ZER EGIN?

Sortu 30
segunduko
iragarkia
mugikorrek
adin txikikoei
eskaintzen
dizkieten aukera
eta mehatxuak
azaltzeko.

SARI NAGUSIAK

Spot onena: **1.000€**

Publikoaren saria: **500€**

Gazteen saria (18 urtetik beherakoak): **500€**

Musika sinkronizazio onenaren saria: **300€**

SARI GEHIGARRIAK

Mondragon Unibertsitateko ikasleen spot onena: 500€

Arizmendiko ikasleen spot onena: 250€



EPEA
**2024ko
maiatzak 20**

BABESLEA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ANTOLATZAILEAK



Mondragon
Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

arteman
KOMUNIKAZIAREN ARTISAUAK

arizmendi
ikastola



Music
Library
& SFX

LAGUNTZAILEAK

Berrikuntza metodologikoa

Nekane Errasti Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritza koordinatzaileak berrikuntzaren alorrean Mondragon Unibertsitateak dituen oinarriak, erronkak eta helburuak azaldu ditu. Unibertsitateak garatzen duen berrikuntza, ikaslea erdigunean jartzen duena, gizartea eraldatzeko misioan kokatzen da.



AURKIBIDEA

03	Editoriala
04	Berriak
10	Erreportajea
13	Iritzia
14	Elkarrizketa
16	Unibertsitatea & enpresa
20	Komunitatea
23	Agenda

Hainbat proiektu sarituta

Mondragon Unibertsitateko Diseinu Estrategikoko talde batek elkarbizitza komunitarioa sustatzeko landutako 'Erein Etxebizitza' proiektua 10º BID de Enseñanza lehiaketan saritua izan da. Ingenieritza Biomedikoko ikasleen leuzemia linfoblastika antzemateko proiektuak saria jaso du II. Logicalis Innovation Challenge-n. Eta, azkenik, Enpresagintza Fakultateko LEINNen 'Tecnologías para un mundo en transición' programa saritua izango da Txinan, Quality Innovation Award 2023an.

Erreferentziako prestakuntza Amazonentzat

Goi Eskola Politeknikoak, programa berritzaile baten bitartez, Amazoneko langileak mekatronika industrialean trebatuko ditu. Hala, erreferentziako prestakuntza zentroa bilakatu da Amazonentzat. Amazoneko langileek 4-6 asteko eskola teorikoak izango dituzte Goi Eskola Politeknikoan, Arrasaten; eta, ondoren, saio dual praktikoak Amazonek Espainian dituen lantokietan jasoko dituzte.

ALDAKETEI AURRERATU

Mundua erabat aldatzen doa, gero eta abiadura handiagoan. Teknologian, gizartean, ohitura eta beharretan etengabe ematen dira aldaketak; eta gaur egun, hein handi batean, enpleguak dira lantokia aukeratzen dutenak, eta ez alderantziz. Lantokiek seduzitu behar dituzte langileak. Horrek guztiak paradigma aldaketa nabarmena dakar. Unibertsitatea adi egon behar da etengabe aldaketa horiei guztiei eta, are gehiago, gizartea aldaketen aurrean prestatzeko aurreratu behar da; horretaz ondo jantzi eta hezi behar ditu ikasleak, aldaketa guztietara egokitu eta gizartea eraldatuko dutenak hain zuzen ere. Hala jokatzeko du betidanik

Egoera aldakor batetik sortu zen Mondragon Unibertsitatea eta ohituta dago aldaketetara. Are gehiago, erabat sustraituta dago bere ekosisteman, bere misioa bat dator horrekin eta egunerokoa dituen harreman horien guztien bitartez erraztasunez antzematen ditu gizartearen aldaketak.

Bestalde, sorreratik enpresarekin elkarlanean aritzen denez enplegatzaileen beharrak zeintzuk (izango) diren iragartzeko gai da; eta, ikertzaileen lanari esker, teknologiaren aldaera eta tendentzien etorrera aurreikusteko ere.

Landutako haizea ere alde dauka, unibertsitateak berak duen antolaketa egitura horizontalari esker, aldaketak egiteko erraztasun eta azkartasun handia daukalako.

Hamarkadatan landutako abilezia, harreman eta trebetasun horiek ahalbideratzen dute Mondragon Unibertsitatea etengabeko berrikuntza pedagogikoan aritzea; eta horren baitan dago, baita ere, ikasturtero titulazio berriak estrainatzea.

Badira titulazio berrien artean Business Analytics-en gainekoa, Energia Sistema Aurreratuena, Adimen Artifizialarena, Berrikuntza Irekia, Gastronomia Irakasleen Prestakuntza zein Hezkuntza Berrikuntzarena, besteak beste.

*Gai da enplegatzaileen
beharrak zeintzuk
(izango) diren iragartzeko
eta teknologien aldaera
eta tendentzien etorrera
iragartzeko.*

Mondragon Unibertsitateak, eta hala jokatu zuten baita ere berau osatzen duten fakultate desberdinetako aurrekariak.



Goi Eskola Politeknikoko lantaldearen zati bat, "Erein Etxekidetza" saritutako proiektuaren sortzailea

Ingeniaritza ikasleak madrilen sarituak

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO DISEINU ESTRATEGIKOKO UNIBERTSITATE MASTERREKO ETA INGENIARITZA BIOMEDIKOKO GRADUKO IKASLEEN PROIEKTU BANA SARITU DITUZTE MADRILGO HAINBAT LEHIAKETATAN: BATA BIZIKIDETZA KOMUNITARIOA AHALBIDETUZ, ETA BESTEA LEUZEMIA LINFOBLASTIKOA MODU GOIZTIARREAN HAUTEMANEZ.

Goi Eskola Politeknikoa | "Erein Etxekidetza" proiektuak bi sari jaso ditu: Zerbitzuen Diseinuaren kategoriako proiekturik onena eta Diseinu eta Berrikuntza Sozialaren ardatzeko proiekturik onena Irakaskuntzaren eta Diseinuaren 10. BID Topaketan.

Proiektu hau Goi Eskola Politeknikoko Diseinu Estrategikoko Unibertsitate Masterreko Sara Gondra, Aitor Domingo Aizpuru, Estibaliz Cardaño, Ricardo Mantecón, Maialen Ane Mateo, Aritz Lekuona eta Saioa Guezuraga ikasleen lana da. Proposamenaren ardatza etorkizuneko "Eco Co-housing Intergeneracional" komunitatea eraikitzea da, Arrasateko Mesedeetako ikastetxe zaharraren eraikinerako proiektatzen dena. Helburua gizarteratzea eta kide izatearen sentimendua sustatzea da, elkarrekin antolatutako jarduera komunitarioen bidez. Jarduera horiek egoiliarren eta auzoko bizilagunen beharrei erantzungo diete.

Zahartze aldaketen erantzuna

ISEA S. Coop., ADINBERRI Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako proiektu honek, Etorkizuna Eraikiz Planaren testuinguruan, Gipuzkoako muturreko zahartze mailek planteatzen dituzten gizarte aldaketei eta senior eta gazteei zuzendutako zuzkidura etxebizitzaren eskariari erantzuna ematea du helburu.

Leuzemia detektatzea



Leuzemia linfoblastiko akutua goiz detektatzeko tresna bat garatzea izan da Logicalis Innovation Challenge lehiaketaren II. edizioan finalista geratu den proiektua.

Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza Biomedikoko Gradu ikasle Ainhoa Artola, Iker Bermeosolo, Izaro Bilbao, Aiala Elejalde eta Garazi Zuazok garatu zuten proiektua. LLAssist izeneko software bat garatu zuten, diagnostiko goiztiarra ahalbidetzen duena, LLA eta Machine Learning irudiak prozesatzeko tekniken bidez. Lehen mailako arretako osasun-zentroetan proba errazak egiteko eta diagnostikoak egiteko Gailu eramangarri bat ere garatu zuten; horrela, berehalako diagnostiko bat eskaini zuten, kostu baxuarekin eta laborategi sofistikatuen beharrik gabe.

Enpresagintza Fakultatea irabazle Quality Innovation Award 2023an



Enpresagintza Fakultateko Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzako Gradu Ofizialeko ikasleak.

FAKULTATEA HEZKUNTZA KATEGORIAN IRABAZLE SUERTATU DA LEINN GRADUAN ESKAINITAKO “TEKNOLOGIAK TRANTSIZIOAN DAGOEN MUNDU BATERAKO” PROGRAMAGA DELA JASOKO DU SARIA APIRILAREN 10EAN ZHUHAIN, TXINAN.

Enpresagintza Fakultatea | Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatea Quality Innovation Award 2023 Berrikuntzaren Nazioarteko Saria irabazi duten sei euskal erakundeetako bat izan da, Ormazabal, Zunibari, Zola sistemas, Ludus Tech eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera. Horiek guztiak apirilaren 10ean jasoko dute saria, Zhuhain, Txinan. Erakunde horiek parte hartu duten 14 herrialdeetako 562 erakunde baino gehiagorekin lehiatu dira, eta 24 aitortzetatik 6 eraman dituzte.

Zehazki, Mondragon Unibertsitateak QIA (Quality Innovation Award) nazioarteko saria jaso du Hezkuntzaren kategorian, “Teknologiak trantsizioan dagoen mundu baterako” programagatik. Programa hori LEINN graduko (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradu Ofiziala) hirugarren mailan ematen da, Mondragon Team Academyren bitartez.

Quality Innovation Award (QIA) 2007an Excellence Finlandek sortutako nazioarteko lehiaketa bat da, QIA Advisory Boardeko kide diren erakunde eta herrialdeen artean (Finlandia, Suedia, Israel, Espainia eta Txina) proiektu berritzaileen lehiakortasuna bultzatzeko helburuarekin. Euskadin, Euskalitek (QIA Advisory Boardeko kidea) ematen du aitortpen hori, eta Innobasquek, Unibasquek eta Ithobek ziurtatzen dute.

Trantsizioan dagoen mundu batentzako teknologiak’

“Trantsizioan dagoen mundu batentzako teknologiak” programa Irungo, Oñatiko, Bilboko eta LEINN graduko

(Lidergoa, Ekintzailetza eta Berrikuntza) Nazioarteko laborategietan eskaintzen da, hirugarren ikasturtean hain zuzen. Horrez gain, Valentzia, Madril eta Bartzelonakolaborategietan ere, Teamlabs, TAZEBAEZ eta Unibertsitateko Florida Unibertsitatearen, Pueblako Unibertsitate Iberoamerikarraren eta Koreako HBM-ak eskaintzen dute programa hau. Helburua STEAM gaitasunak indartzea da (Science, Technology, Engineering, Arts & Mathematics), talde-ekintzaile gazteen proiektuetan, inpaktu sozial, ekonomiko zein ingurumenekoa erantsiz garapen iraunkorraz eta baliabide finituen mundu baten ikuspegiari.

Teknologia esponentzialen errealitatea

LEINNeko talde-ekintzaileek teknologia esponentzialen errealitatea ezagutzen ikasten dute, eta erabilitako arrakasta faktoreak eta hauen gakoak aztertzeke gai dira, tresna espezifiko nagusiak ezagutu eta erabiltzen jakin, eta horiek industria eta sektore berrietan duten aplikazioaz gain. Azken batean, programak teknologiarekin lotutako bokazio eta asmo profesionalak inspiratu nahi ditu ekintzailetzaren eta enpresaren esparruan dauden pertsonengan.

Quality Innovation Award (QIA)

EUSKALITek 2015etik babesten du lehiaketa hau, eta parte hartzen duten erakundeen eta herrialdeen lehiakortasuna handitzen lagundu nahi du bi faseren bidez: batabertakoei zuzendua eta bestean nazioartekoa.

‘InpAkta’ aldizkari zientifikoa aurkeztu dugu

ALDIZKARI ZIENTIFIKO BERRIAK JAKINTZA ARLO GUZTIETAKO IKERKETA LANAK JASOKO DITU, GIZARTEAREN ERRONKEI AURRE EGITEKO BALIAGARRIAK IZANGO DIRENAK. EUSKAL HERRIKO HIRU HIZKUNTZA OFIZIALETAN ARGITARATUTA, UR TEN BI ZENBAKI KALERATUKO DITU.



Bilboko aurkezpenean parte hartutako ordezkariak.

Mondragon Unibertsitatea | Otsailaren 8an, Bilbon egindako ekitaldian, *InpAkta Inpaktu Sozialerako Ikerlanen Akta - Journal of Research for Social Impact* aldizkari zientifikoa berria aurkeztu zuten. Ekitaldian parte hartu zuten Eva Ferreira Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak, Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektoreak, Juan Jose Etxeberria Deustuko Unibertsitateko errektoreak, Rikardo Bueno Zabalo BRTAko zuzendari nagusiak eta Ugo Mayor UPV/EHUko Ikerbasque ikertzailea eta *InpAkta* aldizkari erredakzio-buruak.

Jakintza arlo guztietako ikerketa lanak jasoko ditu aldizkariak, beti ere ikerlanak gizarte moduan ditugun erronkei aurre egiteko baliagarriak badira. Artikulu zientifikoa euskaraz edo ingelesez onartuko ditu aldizkariak. Halere, argitaratutako ikerlan bakoitzak laburpena ekarriko du Euskal Herriko hiru hizkuntza ofizialean. Aldizkariaren zero zenbakiak 20 ikerlan jaso ditu, eta aurreikuspena da urtean bi zenbaki ateratzea.

Vicente Atxak nabarmendu zuen “sustatzaileen aniztasuna eta gai desberdinak jorrazteko bokazioa”. Atxaren ustean, “gai horiei buruz sakon hausnartzeak eta haien arteko harremanak ikerketeak lagunduko digu gizarte konplexu honen erronkei egokiago erantzuten”.

Antolatzaileek azpimarratu zuten lurralde osoko unibertsitate eta ikerketa sare nagusien elkarlanetik jaio dela *InpAkta*. Guztira, jakintza eta ikerketa arloko 22 erakundeek babestu dute proiektua.

Ekoizpen Zientifikorako Atari berria

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN EKOIZPEN ZIENTIFIKOA JASOTZEN DUEN MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN EKOIZPEN ZIENTIFIKOAREN ATARIA ARGITARATU DA, HAIEN JARDUERARI IKUSGARRITASUNA ETA GARDENTASUNA EMATEKO HELBURUAREKIN.



Produkzio Zientifikoko atariaren irudia.

Mondragon Unibertsitatea | Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren menpe dagoen Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak (FECYT), finantzatu du Ekoizpen Zientifikorako Atari honen garapena Dialnet

Fundazioaren lankidetzarekin batera garatu da, María de Guzmán 2022 bikaintasuneko ikerketa zientifikoa sustatzeko laguntzen deialdiaren bidez.

Hiru ataletan egituratua

Atariko informazioa hiru atal nagusitan egituratzen da: bat ikerketa-taldearena da, eta talde bakoitzaren adierazleak biltzen ditu: kideak, argitalpenak, kolaborazioak eta tesiak. Bigarrena ikertzaileena da. Bertan, adierazleak ikertzaileka kontsulta daitezke (argitalpenak, kolaborazioak eta tesiak), eta ikertzaile bakoitzak bere profila eskuratu eta editatu eta bere CVNa deskarga dezake. Azkenik, hirugarren atala Emaitzena da. Bertan unibertsitateko datuak argitalpenen, sarbide irekiaren, tesien, lankidetzaren eta patenteen arabera erakusten dira.

Halaber, atariak aukera ematen dio ikertzaileari, baliozkotu ondoren, bere datuak eskuratzeko, profila editatzeko eta CVNa deskargatzeko.

Ikerketa ikusarazi eta hedatu

Hauek dira Ekoizpen Zientifikorako Atariaren helburuak: unibertsitateko ikertzaileen eta ikerketa-taldeen ekoizpen zientifikoa ikusaraztea eta zabaltzea; unibertsitateko ikerketa-jarduera gizarteari jakinaraztea; lortutako emaitza zientifikoa aurkeztea; irakasleei eta ikertzaileei beren jarduera ebaluatzeko prozesuetan laguntzea (seiurtekoak, deialdiak) eta zabaltzea; CVN egitea (curriculum vitae normalizatua); Mondragon Unibertsitateko ikerketaren kudeaketa-unitateei euskarria ematea unibertsitateko ikerketa-jarduera aztertu eta ebaluatzeko; eta ingeniariatzako, hezkuntzako, enpresa-kudeaketako eta gastronomiako espezialisten erreferentzia-puntua izatea.

Euskal Gastronomia sustatzea



"Mantala: elkartzen gaituena" ekitaldia, Basque Culinary Centerren.

Basque Culinary Center - Gastronomia Zientzien Fakultatea | Euskal gastronomia bere sustraiengatik, osagaiengatik, etengabe garatzen dituen tekniken-gatik eta osatzen duen pertsonengatik da ezaguna. Izan ere, euskal gastronomiak nortasun kultural eta soziala indartzen du.

Hazten ari den proiektua

Mantala Basque Gastronomy 2020an sortu zen, Eusko Jaurlaritzak sustatuta, espazio berriak aztertzeko eta euskal gastronomia bikaintasunetik sustatzeko helburuarekin, etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko. Basque Culinary Centerrek eta HAZIk bultzatuta, Mantalak eragileen sare bat du, besteak beste,

Mahaia Kolektiboa, Gozoa, Euskal Gastronomi Akademia, Fecoga, Jakitea, Eurotoques eta Bisubi Fundazioak osatzen dutena. Elkarre horiekin hainbat proiektu eta ekimen jarri dira abian.

Mantalak erakunde bizia osatzen du, euskal gastronomiak hainbat proiektu eta ekimenen bidez aurre egin behar dien erronkei erantzuteko. Mantalak Basque Culinary Centerren antolatutako 'Mantala: elkartzen gaituena' ekitaldian euskal sektore gastronomikoa bildu zuen, 2023an lortutako lorpenak partekatuz, Mantalan parte hartzen duen Euskadiko komunitate gastronomikoaren pasioari, inplikazioari eta konpromisoari esker. 2024rako hausnarketak eta jarduerak ildoak partekatu ziren hitzordu horretan.

Gipuzkoarron enplegua irudikatzeke, 'GipuzkoHarrok' bideo lehiaketa

'GIPIZKOHARROK' PROIEKTUAREN XEDE NAGUSIA DA GIPIZKOAN BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARAKO SISTEMAREN ROLA ETA ENPLEGAGARRITASUNA INDARTZEA. LEHIAKETAKO PARTE-HARTZAILEEK IRUDIKATU BEHARKO DUTE 30-90 SEGUNDO ARTEKO BIDEOETAN NOLAKOA IZANGO DEN ETORKIZUNEKO GIPIZKOARRON ENPLEGUA.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eta Laboral Kutxaren babesarekin, gazteei zuzendutako bideo lehiaketa antolatu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak: GipuzkoHarrok. Enplegatzen proiektuaren parte den lehiaketaren bigarren edizio honen helburua da Gipuzkoako etorkizuneko lana irudikatzea. Horretarako, 'Nolakoa izango da etorkizuneko gipuzkoarron enplegua?' gaiari erantzunda, 30-90 segundo arteko lanak aurkeztu beharko dira.

Bideo lehiaketaz gain, Enplegatzen proiektuak tailer bat eta escape room bat eskaintzen ditu ikasketxeetan etorkizuneko langileen enplegarritasuna lantzeko. Alde batetik, baliagarriak dira etorkizun hurbileko langileen gaitasun giltzarriak (malgutasuna, konpromisoa, ikaskuntza, herritartasun aktiboa edo orientazioa) lantzeko. Beste batetik, lagunduko dute ulertzen bizi ditugun trantsizioek dakartela bestelako agertoki bat Gipuzkoarako. Izan ere, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaileek lideratuko duten Enplegatzen proiektuak izaera praktikoa dauka; alegia, ez du bakarrik izaera teorikoa edo diseinu mailakoa izango. Horregatik, tailerra diseinatzeaz gain, ekintzak antolatzen ari dira hainbat ikastetxetan.

OINARRIAK

1. Gai: NOLAKOA IZANGO DA ETORKIZUNEKO GIPIZKOARRON ENPLEGUA?
2. Bideoan Gipuzkoako etorkizuneko lanaren irudikapena azaldu behar da.
3. Bideo formatuan aurkeztu beharko da.
4. Lanak horizontalak eta bertikalekin onartuko dira. Editalutua egon daiten.
5. Iraspena 30 segundo eta 90 segundo arteko izango da.
6. Lanak euskaraz izango dira. Matxizko adierazpenetan nahiz ahizkotan.
7. Diruz edo Webtransfer bitartez partekatuko dira eragin@mondragon.edu helbidera.
8. Partekatutako karpetan egileen fitxa bat egon beharko da lanaren izenburuarekin, egileen izenekin, hauen adinekin eta hurrenarenarako telefono zenbaki batekin.
9. Eskubideak:
 - a. Lanak aurkeztu beharko dira Creative Commons lizentziarekin.
 - b. Irudia, izentzia libreaka edota espezial lehiaketarako sortutako izango da.
 - c. Aulin gabeakoa agertzen badira, egileak bermatu beharko du guraso edo tutoreen baimena dutela.
10. Lanen zabalpena antolatzaileen esku geratuko da eta baita lehiaketara aurkeztutako lanen erabilera eskubideak.
11. Bideoak aurkezteko adina eguna: 2024ko apirilak 30.
12. Sari banaketa: 2024ko maiatzaren 23an egongo da sari banaketa elitaldi Eskolako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dorretan eraikinean, 18.00etan.
13. Epea-mahala: Irus-entzunezkoetan aritu behar, proiektuarekin arituz, enpresa zientziara doatuz bat eta proiektuak partekatuz bako osoak dute. Epea-mahala horretan erabiltzeko, sariak hutsik geratuko dira.
14. Parte-hartzaileak notatuak dira eta irudikatzen dituzte.
15. Oinarrien onarpena lehiaketa honetan parte hartzeko oinarri guztiak onartzea dakar.

Sariak

- 18 URTETIK GORAKOEN SAILA: Lehen saria: 700 euro, Bigarren saria: 300 euro.
- 18 URTETIK BEHERAKOEN SAILA: Lehen saria: 500 euro, Bigarren saria: 200 euro.
- BI SAILETAKO SARI BEREZIA: 300 euro.

*Sariak diru gordinen zerga azalpena izango dute.

Hurrenarenarako: eragin@mondragon.edu

LABORAL kutxa

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

GipuzkoHarrok lehiaketa iragarriko duen kartela.

EU4DUAL

Winter School arrakastatsua

E4DUAL ALIANTZAK BERE LEHEN WINTER SCHOOL-A ANTOLATU ZUEN AZAROAREN 20TIK 24RA BITARTEAN. TOPAKETA ALIANTZAREN KIDE DIREN BEDERATZI UNIBERTSITATEETAKO BATEAN IZAN DA ESTIA-INGENIARITZA ESKOLAREN INSTALAZIOETAN.

Errektoradutza | Nazioarteko 70 ikaslek hartu zuten parte: Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza-myGADE Graduko 40 ikaslek beren talde proiektuak garatu zituzten Savonia Zientzia Aplikatu Unibertsitateko (Finlandia) ikasleekin eta Estiako (Frantzia) ikasleekin batera. Lau egunetan zehar, Aliantzako hiru unibertsitate horietako ikasleek lau trebakuntza pilulaz gozatu ahal izan zuten, bi adituren gidaritzapean, eta talde multi disziplinarretan lan eginez zazpi proiektu potentzial garatu zituzten.

Produktuaren diseinua ezagutzea

Ekimen honen helburua ikasleek produktuaren diseinuaren xehetasunak ezagutzea izan zen, ideia sortzetik finantzaketaraino, ingurune kulturantzun eta eleaniztun batean lan egiten zuten bitartean.

Lehen edizio honen arrakasta ikusita, EU4DUAL dabil hurrengo edizioak prestatzen aurtengo ikasturterako.

Plataformako kooperatiba digitalen ekosistema bat sortzen



Presentación de Plattform Coop Venture Builder.

Enpresagintza Fakultatea | Plataforma-kooperatibak, funtsean, oinarriko printzipio kooperatiboak bizirik mantenduz negozio-eredu digital bat sortzeko elkartzen diren bazkideak dira. Horiek egituratze handiagoa behar dute, plataforma kooperatiba berriak sortzen lagunduko duen eskualde ekosistema egituratzeko sareko lana eta lan koordinatua bultzatuz.

Platform Coop Venture Builder interkooperaziotik

Horrela sortu zen "Platform Coop Venture Builder: Ekosistema ekintzaile kooperatiboa dinamizatzea plataforma-kooperatibak zabalduz, ikertuz eta inkubatuz" proiektua, Espainiako Lan eta Gizarte

Ekonomia Ministerioaren Gizarte Ekonomia Bultzatzeko Plan Integralaren laguntzen deialdian finantzatu.

Horren helburua da ekosistema ekintzaile kooperatiboa eta plataforma digitaleko kooperatiben ikerketa, sustapen eta azelerazioko sare nazionala artikulatzea eta dinamizatzea. Epe ertain-luzera, kooperatibak birsortzea eta ekonomia digitalari eta kooperatiba-plataformei lotutako enplegua sortzea sustatzeko.

Proiektu hau lau lurraldetan garatu zenaldi berean, eta Euskadiren kasuan Enpresagintza Fakultateak eta Tazebaez S.Coop-ek ordezkatu zuten.

EIT Manufacturing diploma bikoitza

ROBOTIKA ETA KONTROL SISTEMEN
MASTERREKO IKASLEEK PRESTAKUNTZA
ZABALTZEKO AUKERA DUTE



EIT Manufacturing masterreko graduatuak.

Goi Eskola Politeknikoa | Mondragon Unibertsitateak EIT Manufacturing Master 's programme bat egiteko aukera eskaintzen du, Robotika eta Kontrol Sistemak (Sistema Autonomoak espezialitatean) masterraren bidez. Aukera hori Europako Berrikuntza eta Teknologia Institutuko berrikuntza-komunitatea den eta Europako fabrikazioaren eragile nagusiak lotzen dituen EIT Manufacturing proiektuaren barruan kokatzen da. Mondragon Unibertsitatea eta Mondragon Korporazioa Europako 74 enpresa, unibertsitate eta zentro teknologikok osatzen duten erkidego honetako kideak dira.

Nazioarteko hezkuntza programa

EIT Manufacturing programak mugikortasuna, aholkularitza, sareak sortzea, berrikuntza, enpresa-espirtua eta negozio-moduluak eskaintzen dizkie ikasleei. EIT-M masterreko graduatuek enpresa berriak sortu edo manufaktura industriaren enpresen eta ekosistemaren barruan berrikuntzak egiteko ahalmena garatuko dute, Europako lehiakortasuna, ingurumen-iraunkortasuna eta kalitatezko lanpostu berriak sortzen lagunduz. Gainera, nazioartera zabaltzeko atea irekitzen ditu, izan ere, programa honen bidez masterreko lehen kursoa Mondragon Unibertsitatean egiten da, eta bigarrena atzerriko unibertsitate aliatuetako batean. Bidaia hori amaitutakoan, ikasle bakoitzak bi titulu jasoko ditu, unibertsitate bakoitzetik bana.

Prestakuntza ezin hobea da bizitza profesionalerako; izan ere, kultura berrira egokitzeko prozesua igaro izanak lanpostu berrietan integratzea errazten du.



GOe-ren etorkizuneko instalazioen irudia proiektatzea.

Urtebete hazten jarraitzeko

BASQUE CULINARY CENTERREK BERE JARDUERAREN BALANTZE POSITIBOAREKIN ITXI DU 2023A. GAINERA, BAIKORTASUNEZ EGINGO DIO AURRE 2024ARI, EDA ETA GOE BEZALAKO PROIEKTU ESTRATEGIKOEN GARAPENARI EKINEZ.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Basque Culinary Centerren Patronatuak, erakundearen organo gorenak, 2023an garatutako jardueraren balantze positiboa egin du, GOe eta EDAREN aurrerapenaren jarraipen berezia eginez. Era berean, 'Basque Culinary Centerren eragin sozioekonomikoaren ebaluazioa' azterlanaren bilakaera aurkeztu da. Azterketa horrek Basque Culinary Center irekitzeak eragin kualitatiboan zer eragin izan duen jasotzen du.

Ikertalde aholkularitza enpresak egindako azterlanak Basque Culinary Centerrek azken hamarkadan izan duen bilakaera eta ibilbidea nabarmentzen ditu, eta agerian uzten du jarduerak hazkunde nabarmena izan duela sortutako diru sarreren eta gastuen bolumenean, bai eta ingurunean eragindako eragin ekonomikoan ere. 2012-2022ko azken hamarkadan, eragin ekonomikoa 228 milioi eurokoa izan zen: 125 milioi euro inguruko ekarpena egin zitzaion BPGri, eta 39 milioi euroko itzulketa administrazio publikoari (bide fiskala eta gizarte-kotizazioak).

Proiektu berriak zerumugan

EDA Basque Culinary Centerrek garatu eta gidatutako proiektua da, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak sustatua. "Edariak" unibertsoa aukeraz

beteriko mundua da, eta, hortaz, oso presente egon da Basque Culinary Centerren prestakuntzan, bai unibertsitate graduan, maila guztietako irakasgaien, jardueren eta era askotako ekimenen bidez, sommelierazko, enomarketingeko edo koktelgintzako ezagutzak ikasleei transferitzen dizkietenak, zein masterreko eta ikastaroetako ezagutzak.

EDA Drinks & Wine Campusek edarien sektorea eraldatzen lagunduko du. EDAREN bi egoitzak diseinatzeke arkitektura lehiaketa bat deitu da, arkitektura proiektuaren arduraduna izango den arkitektura-estudioa hautatzeko.

Bestalde, GOek laster osatuko du gastronomia, berrikuntza, ekintzailtza eta ikerketa integratuko dituen espazio fisiko bat. Basque Culinary Centerren proiektu estrategikoa da, eta lurraldeak gastronomian duen erreferente papera sendotzen jarraitzea ahalbidetuko du.

GOe Donostiako Gros auzoan eraikiko da. Eraikuntzako lanak hasita daude, eta horren eraikuntzarekin lotutako alderdiei buruzko informazioa emateko, informazio bulego iraunkor bat jarri da martxan, herritarrek beren kontsultak helarazteko aukera izan dezaten. Aurreikusita dago GOe eraikitzeke obrak 2025eko apirilaren amaieran bukatzea, eta orduan jarriko da martxan jarduera.

Enpresa Diplomadunen Fakultateko 284 graduatu

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ENPRESAGINTZA FAKULTATEAK GADE, BDATA ETA UNIBERTSITATE MASTERRETAKO GRADUATUEN DIPLOMAK BANATU DITU.



Tituludunen sariak banatzeko ekitaldia Euskalduna Jauregian.

Enpresagintza Fakultatea | Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak myGADE

Dual graduko graduatuen diplomak banatu ditu. Zehazki, 144 ikaslek lortu dute titulua myGADE graduán, Oñati (59), Irun (50) eta Bilboko (35) campusetan. Beste 39 gazte graduatu dira Bilbon eskaintzen den Business Data Analytics graduko lehen promozioan. Era berean, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak eskaintzen dituen masterretako bat egin duten 101 ikasle ere graduatu dira. Guztira, Mondragon Unibertsitateak 284 diploma banatu ditu Bilboko Euskalduna Jauregian gradu eta masterreko graduatuen artean. Irekiera ekitaldia Lander Beloki Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko dekanok egin du, eta amaiera

ekitaldia Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektoreak egin du.

MyGADE graduko ikasleek, beren diploma tradizionalarekin batera, aipamen berezia jaso dute garapen pertsonalerako eta taldeen kudeaketarako gaitasunak garatzeko.

Konpetentzien garapenari aipamen berezia

Berrikuntza gisa, myGADE graduko ikasleek, beraien diploma tradizionalarekin batera, garapen pertsonalerako eta taldeen kudeaketarako gaitasunak garatzeari dagokion aipamen berezia jaso dute.

Masterretako 101 ikasle

Graduko ikasleez gain, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak eskaintzen dituen masterretako 101 ikaslek jaso dituzte diplomak. Hauek Erakundeen Nazioartekotzeko masterra, Marketin Digitaleko masterra, Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoko masterra, Kontabilitate eta Finantza Zuzendaritzako masterra eta Business Analyticseko masterreko ikasleak izan dira.

Koirakaskuntzaren abantailak hizpide, Eskoriatzako campusean

JARDUNALDI ARRAKASTATSUAN PARTE HARTU ZUTEN ESKOLATAKO 130 IRAKASLEK; HIZLARIEN ARTEAN IZAN ZIREN MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ETA KANPOKO ADITUAK ETA HEZKUNTZA SARE DESBERDINETAKO ORDEZKARIAK.



130 lagunek hartu zuten parte jardunaldian.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Koirakaskuntzari buruko jardunaldia antolatu zuen, otsailaren 26an, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Irakaskidetza esperientziarikaste-irakaste prozesuetan jardunaldian parte hartu zuten Mondragon Unibertsitateko zein kanpoko ikertzaileek; gainera, mahai-ingurua egin zuten Arrasateko Arizmendi Ikastolako, Donostiako Larramendi ikastetxeko, Gasteizko Sansomendi ikastetxeko eta Zangozako Zangoza Ikastolako ordezkariekin. Eskoriatzako campusean egindako jardunaldian 130 irakasle hartu zuten parte.

Esperientzietatik ikasi

Jardunaldiaren helburua izan da koirakaskuntzaren oinarriak ezagutaraztea eta ikastetxe ezberdinetan egiten diren gelako praktiken berri ematea. Horretarako, EAE, Nafarroa eta Madrilgo ikastetxe ezberdinetako aritu eta adituek esperientziak eta ezagutza partekatu dituzte.

Arrakasta handia lortu duen jardunaldian, solaskideek behin eta berriro nabarmendu zuten koirakaskuntzak klaustroan duen eragin ona: elkarlana sustatu eta elkarren arteko konfiantza hobetzen ditu, irakasleen arteko elkarrizketa metodologikoa errazten du eta hezkuntza proiektuari ekarpen handia egiten dio. Bestalde, ikasleek bizi duten hobekuntzak zerrendatzerako orduan, azaldu zuten koirakaskuntzarekin ikasleek erreferente gehiago dituztela, giro hobea eta gatazka gutxiago daudela ikasgelan eta ikaste-irakaste prozesuan parte-hartzea errazten duela. Amaitzeko, erronken artean, gaiaren gaineko formazio beharra nabarmendu zuten.

Zazpi titulazio berri

Aldaketa globalentzako titulazioak

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN PRESTAKUNTZA ESKAINTZAREN EZAUGARRI NAGUSIA ENPRESAREKIKO BEREZKO HURBILTASUNA IZAN DA BETI, ETA, HORRI ESKER, DENBORA TARTE BAKOITZEAN GERTATZEN DIREN ALDAKETEI ETA ALDAKETA HORIEI AURRE EGITEKO PRESTAKUNTZA AZKARRARI ARRETA JARRI ZAIO. ZALANTZARIK GABE, ENPRESETAKO ETA BESTE ERAKUNDE BATZUETAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA BEHARREI AURRE HARTZEN DIEN PRESTAKUNTZA ESKAINTZA DA.

Gainera, Mondragon Unibertsitatearen eginkizuna gizartea eraldatzea denez, eraldaketa hori bai ala bai gertatu behar da pertsonen prestakuntza osoaren bidez. Horregatik, ezinbestekoa da eskaintza akademikoa etengabe berritzea, beti gizartearen unean uneko beharrei erantzuteko.

Mondragon Unibertsitatearekin batera lan egiten duten eta hainbat proiektu bateratutan partaide diren enpresek eskaintzen dituzten inputen bidez, eta Mondragon Unibertsitateko ikerketa-taldeek jasotzen dituzten joerei eta beharrei buruzko informazioaren bidez, prestakuntza akademikoaren mugari berriak formulatzen dira, lehendik dagoen eskaintza berritzen dutenak, bai edukiari dagokionez, bai dagoeneko finkatuta dauden titulazioen metodologiari dagokionez, edo ezaugarri eta eduki berritzaileko titulazioak sortzen dituztenak.

Etengabeko bilaketa- eta hobe-

kuntza-testuinguru horretan, Mondragon Unibertsitateak titulazio-eskaintza berri bat zabaldu du, honako eremu hauetan:

Gastronomiako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Masterra, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Basque Culinary Centerrek egina; **Hezkuntza Berrikuntzarako Ikerketako Unibertsitate Masterra,** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak egina.

Goi Eskola Politeknikoari dagokionez, titulazio berriak honako hauek dira: Adimen Artifizialeko Unibertsitate Masterra.

Eragiketa Logistiko eta Produktiboen Zuzendaritzako Unibertsitate Masterra eta Energia Sistema Adimendunen Unibertsitate Masterra.

Azkenik, Enpresagintza Fakultateak bi titulazio berri gehitu dizkio bere plantzila zabalari: **Negozio Inteligentziarako Datuen Analisia /Business Analytics** eta **Ekintzailatza eta Berrikuntza Irekia.**

Gastronomiako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Masterra

Basque Culinary Centerrek eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak elkarrekin emango dute.

Deskribapena: Gastronomian jarduteko profesionalak prestatzea, oinarri pedagogiko eta didaktiko sendoarekin. Sukalde-eskoletako edo lanbide-heziketako irakasleei eta unibertsitateko

irakasle eta graduatuei zuzendua.

Elikadura, gastronomia eta sukaldaritza artearen irakaskuntzan eta ikerketan lan egin ahal izango dute, elikagai enpresetako ekoizpen sail teknikoetan, sektoreko ikerketa zentroetan eta zentro teknologikoetan.

Non: Online 100%. Basque Culinary Centerren eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean astebeteko egonaldia egiteko aukerarekin.



Anais Iglesias eta Arantza Mongelos
Koordinatzaileak

“Master honek etorkizuneko gastronomiaren erronketan hezitzaile gisa trebatzea du helburu”.



Beatriz Barbé
Ikaslea

“Master honek konbentzionala gainditzen du eta esperientzia bihurtzen da”.

Hezkuntza Berrikuntzarako Ikerketako Unibertsitate Masterra.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak ematen du.

Deskribapena: Ikasleak ikerketa izateko eta ikerketaren bidez hezkuntza berritatzeko laguntzeko gaitzen ditu.

Hezkuntzaren esparruan ikerketa profil bat garatu nahi duten hezkuntzako graduatu eta profesionalen zuzendua, hezkuntza berrikuntzako prozesuak ulertu, aztertu eta horietan eragiteko. Eta hezkuntza sisteman askotariko rolak bete ahal izango dituzte.

Dónde: Online 100%.



Iñaki Larrea
Ikerketa eta transferentzia zuzendaria

“Kalitatezko hezkuntza berritatu ahal izateko kalitatezko ikerketa behar da”.



Energia Sistema Adimendunen masterreko ikasleak beren proiektuetako bat enpresa-arduradunen aurrean aurkeztean.

Energia Sistema Adimendunetako Unibertsitate Masterra.

Deskribapena: Energia sistemiei buruzko ezagutzan sakontzeko aukera ematen du, eta aplikazio ingeniari baten eta datu analista baten gaitasunak uztartzen ditu, trantsizio energetikoaren

ondoriozko erronka berriei irtenbidea emateko.

Besteak beste, Energia, Elektronika Industrial, Elektronika, Elektrizitatea eta Mekatronika ingeniari zeta titulatutako ikasleentzat.

Non: Galarreta, Orona Ideo (Hernani).



Jon del Olmo
Koordinatzailea

“Energian eta datuen analisisian trebatuko zaitugu, enpresek asko baloratzen duten profila, zure ibilbide profesionalean aurrera egiteko aukera emango dizuna”.

Adimen Artifizialeko Unibertsitate Masterra.

Goi Eskola Politeknikoak emana.

Deskribapena: Ikasi eta aplikatu ikaskuntza Automatikoaren paradigma eta algoritmo berriak, datuen kudeaketa zehatza, eta optimizazioko teknika aurreratuak, profil teknologiko modernoak, oso lehiakor eta gero eta eskatuagoa eskainiz.

Non: Bilbao As Fabrik campusean.



Daniel Reguera
Koordinatzailea

“Sar zaitetz mundua aldatzen ari den zientziaren eta teknologiaren arteko muga berrian”.

Eragiketa Logistiko eta Produktiboen Zuzendaritzako Unibertsitate Masterra.

Goi Eskola Politeknikoak emana.

Deskribapena: Industria enpresen eragiketa logistiko eta produktiboak garatu eta kudeatzeko beharrezko ezagutzak ematen dituen master aitzindaria.

Industria antolaketako gradu ikasketa ofizialak dituzten ikasleei zuzendua. Gainerako titulazioak, kasuaren arabera, prestakuntza osagarriekin eskuratu ahal izango dira.

Nomin: Arrasaten.



Jose Alberto Eguren
Koordinatzailea

“ Trebetasunak eta esperientzia eskuratu dituzu prozesu industrialetan bikaintasun operazionala lortzeko estrategietan”.

Unibertsitate Masterra: Ekintzailetza eta Berrikuntza Irekia (MEINN).

Deskribapena: Ekintzailetasuna lantzea diziplina askotariko talde batean, komunitate baten eta gizarte berrikuntzako ekosistemen sare baten laguntzarekin, nazioarteko esperientzietatik gidatuta eta ikasita. Negozio eredu berritzaileak eta berrikuntza irekikoak dituzten erakun-

deetako etorkizuneko liderrei zuzendua. Enpresa proiektu ekintzaile berriak sortzeko eta kudeatzeko trebetasunak, ezagutzak eta loturak eskaintzen ditu.

Non: Bilbao Berrikuntza Faktoria (BBF-Bilbo). Hibridoa: presentziala + ikaskuntza-ingurune digitala.



Jana Pescador, Iker Egizabal eta Alex Salaberria
Koordinatzaileak

“ Murgildu berrikuntzaren eta ekintzailetzaren alorrean. Sortu zeure enpresa edo sustatu proiektu berritzaileak enpresetan”.

Negozioaren Inteligentziarako Datuen Analiaren Unibertsitate Masterra /Business Analytics

Deskribapena: Datuen analitika aurreratuaren arloan adituak diren profesionalen prestakuntza, marketinean, finantzetan, logistikan, erosketetan... erabakiak hartzeko, datuen zientziaren eta datuen analitikaren teknikak aplikatuz.

Haien gaitasun analitikoak, berrikuntzara eta bitarteko digitaletara irekita, sustatu nahi duten tituludunei zuzendua. Etorkizuneko negozio analista, business intelligence aditu, datu analista eta datadriven negozio arduradunei zuzenduta.

Dónde: Bilbao AS Fabrik (Zorrozaurre).



Aitor Bediaga eta Irantzu Calvo
Koordinatzaileak

“ Espezializatu datuen analitika aurreratuaren esparruan negozio arazoak konpontzeko eta zure ikaskuntza %100ean praktikan jarri proiektu errealekin”.



7 NEW DEGREES TO ADAPT TO GLOBAL CHANGES

MONDRAGON UNIBERTSITATEA CONTINUES TO INNOVATE AND ANTICIPATE THE MANY CHANGES OCCURRING GLOBALLY AND, CONSEQUENTLY, AT ALL LEVELS OF SOCIETY. THIS IS WHY IT IS OFFERING NEW DEGREES TO PREPARE TOP PROFESSIONALS TO PERFORM IN COMPETITIVE COMPANIES AND SERVICES PREPARED FOR CHANGE.

Mondragon Unibertsitatea's educational offer has always been characterised by its innate close relationship with businesses, which enables a long term view of the changes to come with a timely preparation to undertake them. Undoubtedly, this educational offer anticipates the preparation needs for the personnel in companies and other organizations.

Mission to transform society

Since Mondragon Unibertsitatea's mission is to transform society, this transformation must take place by preparing society as a whole. Therefore, it must continuously renew its academic offer, so that it always responds to society's specific needs.

Feedback from companies

The new academic training milestones are formulated through the feedback offered by the companies that work side by side with Mondragon Unibertsitatea and as partners in so many joint projects; along with the information on trends and needs collected by the Mondragon Unibertsitatea research teams. With this information

they either renew the existing offer in both content and methodology of already consolidated degrees, or create degrees with innovative characteristics and content.

New degrees

In this context of continuous research and improvement, Mondragon Unibertsitatea has rolled out a new range of degrees, covering the following fields:

Master's Degree in Teacher Training in Gastronomy, prepared between the Faculty of Humanities and Education Sciences and the Basque Culinary Center; Master's Degree in Research for Educational Innovation, by the Faculty of Humanities and Education Sciences.

In the Polytechnic Superior School, the new degrees are as follows: Master's Degree in Artificial Intelligence; Master's Degree in Logistics and Productive Operations Management and Master's Degree in Intelligent Energy Systems.

Finally, the Faculty of Business has added two new degrees to its large portfolio: Data Analysis for Business Intelligence/Business Analytics.

Entrepreneurship and Open Innovation.

LURRALDE-TALENTUAREN KUDEAKETA:

Enpresen lehiakortasunerako eta eskualde garapenerako ikuspegi integratzailea

Ivan Jimenez Aira MANAGING DIRECTOR. Bizkaia Talent



Gero eta lehiakorrago den eszenatoki global batean, talentua enpresen eta eskualdeentzako baliabiderik preziatuena da. Prestakuntza eta gaitasunen garapena, beraz, oinarritzko zutabe bihurtzen dira lehiakortasunerako eta iraunkortasun ekonomikorako. Euskadik bere testuinguru demografiko eta ekonomikotik eratorritako erronka bereziak ditu. Erronka horiek izan arren, eskualdea bere produktibitate handiagatik eta Europan 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekorik handiena duen bosgarren eskualdea izateagatik nabarmentzen da.

Produktibitate maila hori zuzenean lotuta dago langileen prestakuntza eta gaitasunekin. Hirugarren hezkuntza eta lanbide heziketan egindako inbertsioak norbanakoaren enplegarritasuna hobetzeaz gain, enpresen eta Herriaren kalitatea eta lehiakortasuna areagotzen ditu. Hain zuzen ere, prestakuntza gehiagoren eta lan-baldintza hobeen arteko korrelazio horrek -soldata handiagoak eta langabezia txikiagoak barne- azpimarratzen du lan-merkatuaren beharretara egokitutako hezkuntza- eta prestakuntza-politiken garrantzia.

Euskadiren oparotasuna ez da bere ekonomiara edo lan merkatu mugatzen; Bertako biztanleen bizi-kalitatean ere islatzen da. Bizkaia eta Gipuzkoa bizi-kalitate onena duten Europako probintzien %4en artean daude, 1.200 probintzia baino gehiagoko zerrenda baten barruan, Europako Batzordearen bizi-kalitatearen indizearen arabera. Bereizketa honek talentuaren kudeaketa eraginkorraren, berrikuntzaren eta gizarte-ongizatearen arteko harreman zuzena nabarmentzen du.

Lorpen horiei eusteko eta etorkizuneko

erronkei aurre egiteko, Euskadik talentuaren prestakuntza eta garapenean arreta jartzen jarraitu behar du, bereziki eskari handiko eremuetan eta sektore estrategikoetan. Ekonomia digitalean gero eta funtsezkoagoak diren profil teknologikoak ez ezik, gizarte-zientziei lotutako gaitasun bigunak eta kompetentziak ere barne hartzen ditu, Euskadin kualifikazio handiko langileen %45 ordezkatzen duen adar hori.

Etorkizunerako ezinbesteko gaitasunak dira

Egokigarritasuna, Etengabeko

Ikaskuntza, Pentsamendu

kritikoa, Sormena, Trebetasun

teknologikoak eta Adimen

emozionala.

Prestakuntzak enpresen lehiakortasunerako duen garrantzia

Gaur egun, berrikuntzaren eta aldaketa teknologikoaren erritmo bizkortuak gaitasun eta ezagutzak etengabe eguneratzea eskatzen du. Etengabeko prestakuntza, beraz, elementu kritiko gisa kokatzen da enpresen lehiakortasuna mantentzeko eta areagotzeko. Beren plantillaren etengabeko garapen profesionalean inbertitzen duten enpresek berrikuntzarako gaitasuna hobetzeaz gain, etorkizuneko talentuarekiko duten erakargarritasuna areagotzen dute.

Talentuaren beharra gaur egun gure enpresetan

Konplexutasunaren ezaugarri den negozio-ingurunean, erakundeek langileen itzaropen aldakorretara egokitzeko erronka dute, ordainsari justua ez ezik, hazteko aukerak ere bilatzen baitituzte beren lanean helburuak eta lan-bizitza orekatzeko.

Etorkizunean ikus daitezkeen joerak

Digitalizazioak eta adimen artifizialak enpleguaren panorama eraldatzen jarraituko dute, rol berriak sortuz beste batzuk lekuz aldatuz. Horrek gaitasun-beharren etengabeko berrazterketa eskatuko du. Talentuaren kudeaketa are globalagoa izango da, muga geografikorik gabe talentua bilatzen duten enpresek, eta horrela berrikuntza eta sormena aberasten dituen aniztasuna sustatuko dute. Azkenik, jasangarritasunaren eta gizarte-erantzukizun korporatiboaren garrantzia areagotu egingo da, bai talentua erakartzeko, bai estrategia korporatiboan.

Etorkizunean arrakastaz nabigatzeko, gaitasun hauek ezinbestekoak dira:

Egokigarritasuna eta Etengabeko Ikaskuntza. Pentsamendu kritikoa, sormena eta berrikuntza, trebetasun teknologikoak eta adimen emozionala

Amaitzeko, Euskadik lurralde-talentuaren kudeaketak, hezkuntza, prestakuntza eta berrikuntza oinarrituta, enpresa-lehiakortasun handiagoa eta bizi-kalitate hobea ekar dezakeen eredu bat eskaintzen du. Oroigarria da talentua etorkizuneko oparotasunaren erdigunean dagoela, ez bakarrik Euskadirentzat, baita bere garapen iraunkorra eta herritarren ongizatea bermatu nahi duen edozein eskualde edo herrialderentzat ere.



“Berrikuntzaren fokoa gizartea eraldatuko duten profesionalak hezten jartzen dugu”

Nekane Errasti

Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritzako koordinatzailea

GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO INGENIERITZAKO KOORDINATZAILE NEKANE ERRASTIK MONDRAGON UNIBERTSITATEAK BERRIKUNTZAREN ALORREAN DITUEN OINARRI, ERRONKA ETA ASMOAK DESKRIBATU DITU. GIZARTEA ERALDATZEKO MISIOAREN BAITAN ULERTZEN DA UNEORO UNIBERTSITATEAK LANTZEN DUEN BERRIKUNTZA, ETA IKASLEAK ERDIAN JARRITA.

Mondragon Unibertsitatearen oinarri sendoa eta esperientzia abantailak dira garai aldakor hauetan... Bai. Unibertsitateak 25 urte bete berri ditu, eta bertako fakultateek are ibilbide luze-agoa dute: Goi Eskola Politeknikoaren 80 urtetatik Basque Culinary Centerren 10 urtera bitartean. Ibilbide luze eta oparoa izan dugun erakundeok osatzen dugu, eta horrek guztiak ematen du gaur garena izateko oinarri sendoa, esperientzia, ibilbidea...

Aliantzak betidanik landu izan dituzue... Unibertsitatearen jatorria den Goi Eskola Politeknikoa ez zen ekimen isolatu bat izan, enpresen beharrei erantzuteko aliantzatik sortu zen. Kooperazioa eta interkooperazioa gure DNAn txertatuta daude eta hala jarraitzen dugu, egunerokoan lantzen, adibide izaten eta ikasleei transmititzen.

Zentzu horretan hainbat adibide daude: LEINN gradua TEAM Academy-rekin aliantzatik sortu zen; Humanitate eta Hezkuntza Zientzia Fakultateak Vic-eko Unibertsitatearekin doktorego programa elkartua dauka; Humanitate eta Hezkuntza Zientzia zein Enpresagintza fakultateek hainbat aliantza dituzte Teamlabsekin Estatura zabaltzeko; eta Goi Eskola Politeknikoak beste hainbat (Goierrri Lanbide Eskola, Somorrostro Lanbide Heziketa zentroa) ingeniari-tza ikasketak eskaini eta aurrera eramateko. Aliantza hauek estrategikoak dira elkarrengandik ikasi eta erakundeen garapena sustatzeko.

Nola ulertzen du berrikuntza Mondragon Unibertsitateak? Eta non jartzen du fokoa? Berrikuntzak behar du zentzu bat, zergati bat, hartzaille bat. Zentzu horretan Mondragon Unibertsitateak oso garbi dauka gure misioa gizartea eraldatzea dela. Hortaz, pentsatu, diseinatu eta abian jartzen den edozein berrikuntza inaktu hori izan behar du.

Fokoa ikaslea dago, hauek hezten ditugu pertsona eta profesional onak izateko, gizartea eraldatuko dutenak. Begirada globala duen profesionala nahi dugu, eragingo duen inaktuaren jakintun izango dena. Gaur egungo ikasleak, Z belaunaldikoak, ez dira lehengoak. Hortaz, ezinbestekoa da haien beharrak ondo ezagutzea haien berrikuntzak diseinatzerakoan eraginkorrak izateko. Are gehiago, orain gazteak dira lanlekua aukeratzen dutenak, eta ez alderantziz.

Zertan bereizten da Mondragon Unibertsitatea berrikuntzan beste unibertsitateekiko? Bi bereizgarri nagusi ditugu: bata, merkatutik (enpresa, erakundeak, ikastetxeak...) gertu gaudela, agente hauek enplegatzaile eta kolaboratzaile ditugulako; haiekin uneoro hartuemanetan egonda gure proposamen eta berrikuntzen kontrasteak ere eginez.

Eta bestea azkartasuna da. Gure antolaketa eredu horizontala den heinean horrek errazten digu erabakiak hartu eta berrikuntzarako egokitzapen eta aldaketak azkar egiten.

Zeintzuk dira Mondragon Unibertsitatearen indarguneak? Batetik berrikuntza, zentzu batekin eta misiora lerrotatuta. Beste bat, praktikotasuna, egiten ikasi, Learning by Doing deritzona: praktikaketengabe, irakaslearen rola aldatuta, ikasleek egite horretatik etor



“**Merkatutik gertu egoteak eta aldaketak egiteko azkartasunak bereizten gaitu berrikuntzaren esparruan**”

dadila ikastea. Eta hirugarrena kalitatea da: gure pertsonalaren trebakuntza, oso gertukoak izatea... Hau ez dugu guk neurtzen, merkatuak neurtzen du: gure egrasatuen tasa oso altua lanean dago (%94 graduan eta %96 masterrean). Eta azken 4 urteetan ikasle hazkunde nabaria eman da.

Zein beste esparru landu beharko zenituzkete epe ertainean? Edo zeintzuk indartu? Unibertsitatearen eta fakultateen plan estrategiko berriak prestatzen gabiltza eta aipatutako bereizgarriak berretsi egin dira. Bestalde, jaitsiera demografikoa errealitatea da, eta horri nola aurre egin asmatu nahi dugu. Eta, hori gutxi balitz, talentuaren beharra nagusitzen da azken aldiko entzunaldietan.

Goi Eskola Politeknikoaren kasuan, gure helburua bada neskak ingenieritzako ikasketetara hurbiltzea. Horretarako, ikastetxeekin elkarlanean, etapa oso goiztiarretan orientazio jarduerak egiten gabiltza ZTIM bokazioak sustatzeko.

Mondragon Unibertsitateak enpresa eta erakundeekin duen harreman naturala historikoa da, eta horrek erraztasuna ematen dizue haien

beharrak ezagutu, eta aurreratzeko. Haiengandik oso hurbil gaude eta entzuten diegu une oso desberdinetan: entzute horietatik etorri daiteke ikerketa; hala, ezagutza berriak sortzen ditugu arazo berriei erantzuteko; hortik ezagutza transferentzia enpresara bueltatzen da aldi berean; enpresatako profesionalak hezteko beharrari erantzuten zaio. Horrez gain, elkarlan horretan identifikatzen ditugu profil berriak; eta horretarako titulazio berriak diseinatu. Gainera, Dual programen bitartez uneoro kontrastatu dezakegu proposamen berrien egokitasuna. Eta, azkenik, laneratzean, balioan jartzen dugu prozesu osoa.

Horrez gain, saiatzen gara enpresa edo erakundeen presentzia gure egunerokotasunean txertatzen. Business Data gradua, esaterako, horren adibide da: moduloz modulo eta kurtoz kurto enpresek planteatutako erronkei erantzun beharra; edo Diseinu Estrategikoko masterrean enpresek erronkak planteatu, gidatu eta emaitzak ebaluatzea. Kasu guztietan Learning from Reality leloari eutsiz, kasu errealek ekartzen ditugu.

Berrikuntza metodologikoan pauso nabarmenak ematen jarraitzen duzue... Aldaketa guztietara egokitu behar gara. Metodologian aldaketa handiena da fokoa aldatu izana: lehen protagonista irakaslea zen, eta orain ikaslea. Orain ikasleek egin behar dute bidea, eta irakasleek lana da bideratzea.

Ikasketa jarduerak eta testuinguruak gero eta gehiago egokitzen dira bizitza errealeko egoeretara; ikasketak horrek izan behar du gero aplikatzeko modukoa. Eta horrek eragina du metodologia guztietan. Adibidez, Learning Journey esperientza integratuta dugu alor ia guztietan, ikasleari aukera ematen diolako kanpoan nola lan egiten den ezagutu eta begirada irekitzeko.

Formazio Dualeko presentzialtasunean ere berrikuntzak daude... Enprekin daukagun hurbiltasunak eta 80 urteko esperientziak ahalbidetzen du. Unibertsitate batzuk harrizten dira gure lorpenekin, baina horretarako asko ere behar da, asko landu, eta enpresen konfiantza irabazi.

Eredu Duala, lana eta ikastea tartekatzearen kontzeptua, ere aldatuz doa. Enpresa eta erakundeekin lan dinamikak aldatuz doa, besteak beste bizikidetzaren medio. Hala, enpresek beste ordutegi batzuk dituzte; ondorioz, Goi Eskola



“**Gure kolektiboan jasangarritasunaren gaineko kontzientzia areagotzea ere bada berrikuntzaren baitako zeregin bat**”

Politeknikoan hasi ginen ikastea eta lana egun berean konbinatu beharrean, egunetan kontzentratzen. Horrek hainbat abantaila ditu.

Diploma bikoitzen eskaintza handituz doa? Ingeniaritza Industrialeko mastera Frantziako beste unibertsitate batekin batera egin daiteke; eta EIT Manufacturing partzuergoaren bitartez lortzen dira gure eta baita Austria zein Suitzako titulazioak. Gainera, EU4Dual markoaren baitan Europako bederatzi unibertsitate batuta joint master edo master bikoitz gehiago eskaintzeko aukera izango dugu etorkizunean. Talentu gaztea erakartzeko ere garrantzitsua da.

Beste zerbait gehitu nahiko zenuke? Jasangarritasuna ere berrikuntza moduan ulertzen dugu eta campusak jasangarriagoak izateko programa daukagu fakultate guztietan. Sortu eta kontsumitzen dugun energia orekatu nahi dugu. Eta mugikortasun ohitura jasangarriagoak sustatu. Ahalegintzen gara ikaslearen artean jasangarritasunaren inguruko kontzientzia areagotzen, jarduerak bakoitzak zer eragin izan dezakeen hausnarketa egin dezaten, bai emisioetan, bai berdintasunean

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak Amazoneko langileak mekatronika industrialean heziko ditu

PROGRAMA BERRITZAILEA DA, ARRASATEKO LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROAK AMAZONENTZAT BEREZIKI DISEINATUA, LANGILEEN KUALIFIKAZIOARI DAGOKIONEZ BERE BEHARRIZAN ZEHATZEI ERANTZUNEZ.



Amazon eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren arteko akordioaren aurkezpena.

Goi Eskola Politeknikoa | Amazonek eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak bat egin dute Amazoneko langileen prestakuntza profesionala eskaintzeko "Aprendices" programaren bitartez. Prestakuntza Mekatronika Industrialeko goi-mailako prestakuntza zikloaren programaren bidez gauzatu da, prestakuntza eta enplegua txandakaturik.

Ikastaroaren lehenengo edizioa 2023ko azaroan hasi zen eta 2 urtez luzatuko da. Amazoneko langileek 4-6 asteko txandakako aldietan Mondragon Goi Eskola Politeknikoak Arrasaten dituen instalazioetan eskola teorikoak uztartuko dituzte, eta arlo dual praktikoa Amazonek Madril, Toledo, Sevilla, Valentzia eta Murtzian dituen egoitzetan.

Mondragon, Amazonentzako erreferentziako heziketa zentroa

Programa berritzailea da, lanbide-heziketako zentroak Amazonentzatu diseinatu, eta enpresak langileen kualifikazioan dituen behar zehatzei erantzutendie. "Aprendices" lanbide-heziketako programa bat da, eta bere helburua da profesionalen harrobatsortze aberemantentze sailtarako, prestakuntza eta enplegu-eredu misto baten bidez. Amazonek duela 3 urte jarri zuen abian programa hau, eta orain jauzi

kuantitatiboa egin du Arrasateko prestakuntza-zentroaren eskutik. Zentro hau estatu mailan erreferentziako prestakuntza zentroa da Amazonen programa honetarako.

"Guretzat garrantzitsua da prestakuntza-aldian dauden gure langileek mekatronikan araututako ezagutzak eskuratu ahal izatea Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren eskutik, eta, ondoren, esperientzia praktikoa osoa izatea konpainiako profesionalen eskutik", adierazi du Marta Casasayas Amazoneko "Aprendices" programaren arduradunak.

Bestalde, Carlos García Mondragon Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile nagusiak azpimarratu duenez, "ikastetxeok gaitasuna eta erantzukizuna dugu enpresei laguntzeko langileen kualifikazio prozesuetan. Amazonek profesional onenak izateko ohi ez bezalako erabakitasuna erakusten du, eta apustu garrantzitsua egiten du, bai ekimenaren dimentsioaren eta irismenaren alde, bai horrek dakarren ahalegin ekonomikoaren eta denboraren alde. Ekimen aitzindari hori, gainera, adibide bikaina da beste industria-enpresa batzuei, beste sektore batzuetakoei, baina antzeko beharrak dituztenei, bide posibleak erakusteko".

Euskadiko enpresetan merkataritza berrikuntza sustatzeko programa

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK EUSKAL ENPRESEN LEHIAKORTASUNA ETA NAZIOARTEKO PROIEKZIOA BULTZATZEKO PLATAFORMA BAT JARRI DU MONDRAGON UNIBERTSITATEKO LEINNEKO IKASLEEN ESKURA



Merkataritza-berrikuntzako programaren aurkezpena.

Enpresagintza Fakultatea | Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarekin lankidetzan, Euskadiko enpresetan merkataritza-berrikuntza sustatzeko programa bat jarri du abian. Plataformaren aurkezpen ekitaldia Oñatiko campusean egin zen eta Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektoreak eta Javier Hurtado Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuak eman zioten irekiera.

Berrikuntza eta enpresen sorkuntza sustatzea

Europar zein mundu mailan berrikuntza, enpresen sorrera eta talde ekintzaileen garapena sustatzeko beharretik sortzen da programa hau. Horretarako, euskal enpresen lehiakortasuna eta nazioarteko proiektzioa bultzatzeko plataforma bakarra eskaintzen die ekimenak ikasleei.

Sektorearen egoeraren gaineko hitzaldia

Ekitaldian, sektorearen egoeraz ere hitz egin zen, eta honako hauek parte hartu zuten: Elena Moreno, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza zuzendariak; Gloria Gubianas, Hemperren sortzaile eta CEO-ak; Mikel Feijoo, SKFKren sortzaile eta zuzendari nagusiak; Jon Etxebarria, Baiba e Investor enpresaren sortzaileak; eta Iñigo Galdona, Loco Poloren sortzaile eta batek.

9 proiektu aukeratuak

Ondoren, Euskadiko Merkataritza Berrikuntzarako eta Ekintzailetzarako proiektuaren esparruan bultzatzeko hautatuak izan diren LEINN Graduko (Ekintzailetza eta Berrikuntza Lidergoa), 2, 3 eta 4. mailako ikasleen bederatzita lan aurkeztu ziren.

Ekimena Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak babesten du.

Gazta urdinaren ekoizpenaren hobekuntza eta optimizazioa

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO INGENIARITZAKO IKASLE BAT ETA HAINBAT IKERTZAILE LEARTIKERREKIN BATERA GAZTA HOBETZEKO BLUECARE PROIEKTUAN ARI DIRA LANEAN.



Bluecare proiektuko ikerketa taldearen zati bat.

Goi Eskola Politeknikoa | FMondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Fluidoaren Mekanikako ikerketa-taldea izan zen elikagaien sektorean lan-ildo berri bat sortzeko aurrerapausoa eman zuena, eta Leartikerrekin batera Bluecare proiektuan murgildu zen, heltze-baldintzak aztertuz gazta urdinaren ekoizpena hobetzerako bideratutako proiektuan. Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren BERRIKER programaren babesa du.

Ekoizpen prozesua

Gazta ekoizpen guztiak kalitate-estandar gorenei erantzuteko, ezinbestekoa da elaborazio eta heltze prozesuaren xehetasun guztiak ezaiztea. Horregatik, Bluecare proiektuak gaztaren heldutasunerako parametro optimoak identifikatu nahi ditu bi ikuspegitik; Leartikerrek aztertzen duen gaztaren alderdi mikrobiotikoa eta Mondragon Unibertsitatearen esku dagoen heltze-ganberaren prozesuaren zenbakizko modelizazioan.

Kamerak aztertzeke, ikerketa hiru fasetan banatu da: lehena Kameraren azterketa da. Kamera batek tenperaturak espazioan duen banaketarekiko, konbekzioarekiko eta hezetasunarekiko, besteak beste, izango duen portaera iragartzen

duen eta baliozkotu den zenbakizko eredu bat garatzea. Bigarrena kameraren estudioa da, barruan gaztak dituen lehen faseko parametroak aztertuz gaztak ganberan sartzen direnean. Nola eragiten du horrek hezetasunaren, konbekzioaren eta tenperaturaren? Zein da ganbera horretarako gazta kopururik egokiena eta nola banatzen dira? Nola eragiten dute parametroek heltze-prozesuan zehar langile batek kamera ireki eta ixten duenean egin ditzakeen elkarreraginaren aurrean?

Hirugarren fasea faltan

Proiektuaren lehen bi faseak jada egin dira, eta hurrengo urteetan azken fasea osatu ahal izatea espero da, horrela ganberetako heltze-prozesuaren baldintza ezin hobekien zehaztu ahal izateko eta gazta urdinaren ekoizpena kalitate gorenean monitorizatu ahal izateko.

Azken fasea gaztak kamerarekin duen interakzioaren azterketari dagokiona da. Gaztak heltzearen ondorioak ereduaren nola txertatzen diren aztertzen du (hezetasuna eta CO2 truketzea, mikrobiotaren sorrera...). Fase hori oraindik ez da garatu, eta Leartikerrek lortutako emaitzekin batera egingo da.

Bluecare proiektua gazta urdinaren ekoizpena hobetzerako bideratutako proiektua da, heltze-baldintzak aztertuz.

Norvegiako demokrazia industrialaz aztergai

ENPRESAN PARTE HARTZEKO HURBILKETA SOZIO-TEKNIKOA: INDUSTRIA-DEMOKRAZIA AKER SOLUTIONS-EN' LIBURUA KALERATU DU OIER IMAZ IKERTZAILEAK, JOHAN E. RAVN, TROND SANNE HAGA ETA DAVYDD J. GREENWOOD NAZIOARTEKO IKERTZAILEKIN BATERA.I.



Liburuaren azala

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Oier Imaz Mondragon Unibertsitateko LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiko ikertzailea eta irakaslea honako liburua argitaratu du LANKI Koadernoak bilduman: *Enpresan parte hartzeko hurbilketa sozio-teknikoa: industria-demokrazia Aker Solutions-en*. Ikerketa kasu azterketa bat da eta lantzen du Norvegiako demokrazia industrialaz, Aker Solutions erakundea ardatz hartuta. Liburua da bilduma horren 17.a eta bi hizkuntzatan argitaratu da, euskaraz eta gaztelaniaz. Dagoeneko sarean dago denon eskura.

Oier Imazekin batera, liburuan parte hartu dute beste hiru idazleak: Johan E. Ravn, Nord Universityko irakaslea eta SINTEF taldeko zientzialari buruak; Trond Sanne, Haga Norvegiako Unibertsitateko Zientzia eta Teknologiako doktorea; eta Davydd J. Greenwood (Cornell University), Antropologia Saileko Goldwin Smith irakasle emerituak.

Imaz ikertzailearen hitzetan, "liburua kokatzen da lan zabalago baten baitan, non saiatu garen Norvegiako demokrazia industrialaz eta Mondragoneko kooperatibismoa konparatzen". Ikerlana egiteko motibazioa izan da "bi ereduak elkarrengandik ikasteko aukerak identifikatzea. Eta horretarako marko analitiko bateratu bat landu dugu. Marko horretan oinarrituta, liburuaren helburua da Norvegiako eredu Mondragoneko kooperatibistei hurbiltzea".

Enpresari baino, ereduari erreparatu nahi izan diote egileek. Horregatik, ereduaren arteko konparaketan jarri dute azpimarra: Mondragon eta Aker Solution-en, bietan, dagoelako jatorrian kapitalaren eta lanaren arteko kontraesanari beste modu batean erantzuteko bokazioa eta langileen parte-hartzearen gaineko kezka.

Mugikor eta adin txikikoen arteko harremana hartuko du ardatz Euspot-ek

LAU ERAKUNDEK ANTOLATZEN DUTE AITZINDARIA DEN EUSKARAZKO SPOT LEHIAKETA: ARETXABALETAKO UDALAK, ARTEMAN KOMUNIKAZIOAK, ARIZMENDI IKASTOLAK ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAK. 13. EDIZIO HONETAKO BABESLE NAGUSIA DA EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.



Antolatzaileak Aretxabaletako campusean egindako agerraldian.

Humanitate eta Hezkuntza Zien-tzien Fakultatea | Euspot euskarazko spot lehiaketaren edizio berria aurkeztu da Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako campusean. Oraingo ediziooko parte hartzaileek egin beharko dute 30 segundoko iragarki bat mugikorrek adin txikikoei eskaintzen dizkieten aukera eta mehatxuak azaltzeko.

Pil-pilean dagoen gaia

Gizartean eztabaida bero-bero dago adin txikikoei egiten duten telefonoen erabileraren inguruan; asko dira mugikorren erabilerari mugak edo debekuak jarri nahi dizkieten kolektiboak eta adin txikikoei egiten duten mugikorren erabilerarekin oso kritiko azaltzen direnak. Badira

egitasmo zehatzak herri ezberdinetan abian jarri direnak, guraso elkarte ezberdinetatik sustatu diren kanpainak, mugikorren erabilera ez egokiak arazo larriak sor ditzakeela dioten profesionalak...

Helburua da 30 segundoko iragarki bat sortzea gizartean kontzientzia pizteko eta bereziki guraso gazteen kolektiboan eragiteko. "12 urteko seme-alabak mugikorra eskatu die gurasoei. Zer egin?" galderari erantzun behar dioten spot sortzaile eta originalak behar dira. Teknologia eta mugikorrek adin txikikoei eskaintzen dizkieten aukera eta mehatxuak aintzat hartuko dituzten iragarkiak. Gizarte orokorrari, baina bereziki adin txikiko haurren guraso eta hezitzaileei zuzendutako iragarkia izan behar da.

Helburua da 30 segundoko iragarki bat sortzea gizartean kontzientzia pizteko eta bereziki guraso gazteen kolektiboan eragiteko.

Parte hartzea eta ko-kreazioa sustatzeko proiektuak

Goi Eskola Politeknikoa | Diseinu Berrikuntza Zentroak gaur egun esku artean dituen proiektuetako batzuk pertsonen parte hartzea eta ko-kreazioa sustatzeko oinarritzen dira. Testuinguru desberdinetan aplikatzen diren proiektuak izan daitezke.

Adibidez, Drop proiektua: eremu publikoetan parte hartzea eta ko-kreazioa sustatu nahi dira Ermuako Santa Ana auzoko erroka zehatz batzuei aurre egiteko (Europar Batasuneko babes ekonomiko duen proiektua); eta CINC proiektua: Gipuzkoako enpresetan ko-kreazioa eta parte hartzea sustatzea du helburu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa du.

Nola gauzatzen dira?

Drop proiektuaren helburua da Ermuako Santa Ana auzoa ikuspegi sozial batetik berritzea eta horretarako bizilagunekin prozesu parte hartzaileak sustatzen ari dira. Auzoaren diagnostiko bat egin da (etxebizitza motak, bertan bizi diren pertsonen profilak...) eta bizilagun eta eragile sozialekin landu da topatzen dituzten arazo eta aukeren hausnarketa ariketa. Honenbestez, beraiekin bisualizatu da nolako auzoa eduki nahiko luketen 2030 urtean.

Helburu horretara heltzeko agertoki desberdinak identifikatu dituzte eta horiek erdiesteko ekintzak planteatu dira, Udalaren estrategiarekin lerrokatuta dauden egiaztatuz. Behin agertoki bat aukeratu ondoren, lan taldeak martxan jarriko dira adostutako norantzan pausoak eman ditzaten.

Enpresetako langileen pertzepzioak

Foru Aldundiak babesten duen CINC proiektuak aldiz, ko-kreazioa eta pertsonen parte hartzea beste ingurune batean aztertzea du helburu, enpresetan. Horretarako, lehenengo diagnostiko bat egin da enpresetako langileek duten pertzepzioa ezagutzeko (parte hartzea noizean behin langileei galderak egitea edo ikuspegi estrategiko batetik lantzea da?, Zein prozesu parte hartzaile daude enpresan?...).

Eraberean, hainbat enpresen kasu praktikoak aztertu dira. Horietako batzuk parte hartzea informazioa modugardenean zabaltzean ulertzen dute; beste batzuek langileak inplikatzeko aukeren identifikazio eta soluzioen proposamenetan; eta badira parte hartzea enpresaren gobernantzan zentratzen dutenak ere. Hainbat enpresen kasuak modu sakonean aztertzeaz gain, galdetegi ireki bat zabaldu da Gipuzkoako edozein enpresak duen errealitatea islatu dezan.

Drop eta CINC proiektuen oinarria pertsonen konpromisoa eta atxikipena (ingelesezko engagement) lortzeko gakoak identifikatzean datza, horrek bermatuko baitu ingurunearen eraldaketa (edozein testuingurutan aplikatuta ere). Gaiak lanketa ugari egiteko aukera ematen duenez, datozen urteetan ere Mondragon Unibertsitateko Diseinu Berrikuntza Zentroak horretan jarraituko du lanean.



CINC eta Drop proiektuetako arduradunak Goi Eskola Politeknikoan.

MTalent, Seat-ekin batera erronkei aurre eginez

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ENPRESAGINTZA FAKULTATEKO PERTSONEN TALENTUAREN KUDEAKETA ESTRATEGIKOKO MASTERREKO (MTALENT) IKASLEAK TALENTUA ERAKARTZEKO ERRONKA INTERESGARRI BAT LANTZEN ARI DIRA SEAT ENPRESAREKIN BATERA.



#MTalent masterraren saioa.

Enpresagintza Fakultatea | Aurtengo urtarilean bigarren enpresa-erronka hasi da Bartzelonan, Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoari buruzko #Mtalent Masterraren barruan.

Oraingo honetan, Seat autoen enpresan garatzen da lankidetzaren, honek bertako prestakuntza-eskola ospetsuarentzat talentua erakartzeko beharra azaltzen baitu.

Ikasle guztiak lankidetzan

Erronka horri ekiteko prozesuan, ikasle guztiekin lan egin da, dagokion enpresaren beharra ulertu, alternatibak aztertu, irtenbideak aurkeztu, balioa eman eta, batez ere, bidean ikasteko.

Laboral Kutxaren ondoren

Seat automobil-enpresak planteatutakoa ikasturte akademiko honetako bigarren erronka da, abenduan Laboral Kutxak aurkeztutako beste lankidetzaren erronka bati amaiera eman baitzitzaion. Hala ere, MTalent taldea dagoeneko ari da edizio honetako hurrengo erronkak bideratzen eta martxan

jartzen, eta Iberdrola eta Eurofirms bezalako enpresei zuzenduta egongo dira.

Talde lana eta aholkularitza adituak

#MTalent masterraren ikaskuntza metodologia enpresa-erronka errealei aurre egitean oinarritzen da, lantaldeetan lan eginez, inspirazio-workshop-ak landuz, ikaskuntza bidaiak egin eta aholkularitza adituarekin. Pertsona bakoitzari bere autoezagutza prozesuan eta garapen pertsonal zein taldekoan laguntzen zaio.

Jasotako esperientzia eta gaitasuna

#Mtalenter-ek, gainera, bermatutako urtebeteko praktikak egiten dituzte, eta erreferentziako enpresetan zein pertsonekin bost arlotan lan egin izanaren esperientziarekin eta trebetasunekin merkaturatzen dira. Enpresara eta enpresek eta pertsonen arloan dituzten eraldaketa erronketara erabat konektatuta dagoen master ofizial bakarra da.

Talentu-kudeatzaileen belaunaldi berria Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatek dator, TeamLabs-en eskutik, Bilbon eta Bartzelonan!

Cinco Jotas Cooking Challenge

BASQUE CULINARY CENTERREK, BOST JOTAREKIN BATERA, GASTRONOMIA ETA SUKALDARITZA ARTEETAKO GRADUKO HIRUGARREN MAILAKO IKASLEEI ZUZENDUTAKO GASTRONOMIA LEHIAKETAREN ZORTZIGARREN EDIZIOA ANTOLATU DU.

Basque Culinary Center - Gastronomia Zientzien Fakultatea |

Andreu Arés izan da Cinco Jotas Cooking Challenge 8. edizioko irabazlea. Cinco Jotas-ek "Basque" rekin batera antolatzen du, Gastronomia eta Sukaldaritza Arteetako graduko 3. mailako ikasleen talentua saritzeko helburuarekin. Parte-hartzaileak gastronomiako promesa gazteak dira, jatetxeak eta ahosabaiak konkistatzera merkatura irteteko zorian daudenak, eta haien sormena erakusten dute, plater klasikoak berrinterpretatzeko proposamen berri eta irudimentsuak diseinatuz.

Tradizioa eguneratu

Mallorcako gazte honek irabazi du Cinco Jotas Cooking Challengeko azken edizioa, ohiko pikadillo zopan oinarritutako plater batekin, baina Andaluziako amonek urdaiazpikoarekin, arrautza gogorrarekin eta pikatosteekin egiten zutena.

Andreuk dioenez, plater hau hegoaldeko jendeari, paisaiei eta zaporeei egindako omenaldia da. Egia esan, "Cinco Jotas produktuen zapore, presentzia eta integrazio onagatik" saritu dutela nabarmendu du Pedro Subijana epaimahaiko presidentek. Sukaldari donostiarraz gain, Maria Castrok, Luis Arrufatek eta Jose Manuel Rodriguezek osatu dute epaimahaia



Lehiaketa gastronomikoaren zortzigarren edizioko parte-hartzaileak.

Ekintzailtza teknologikoko proiektu batean murgilduta

EGOITZ GOIKOETXEA FABRIKAZIO GEHIGARRIKO MASTERRA EGIN ZUEN MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI ESKOLA POLITENIKOAN ETA BERTAN EKINTZAILTZAKO SARI BAT ERE IRABAZI ZUEN SURF TAULAK TEKNOLOGIA BERRITZAILE BATEKIN FABRIKATZEKO. HONAKOA DA BERE EKINTZAILTZA PROIEKTUAK IZAN DUEN BILAKAERA.



Egoitz Goikoetxea ekintzailea tailerrean lanean.

Goi Eskola Politeknikoa | 2021eko ekainean Egoitzek unibertsitateak antolatutako Enpresa Sortuz lehiaketako lehenengo saria irabazi zuen. Sariak aukera eman zion 22/23 ikasturtean hainbat urtez buruan zuen ekintzailtza teknologiko proiektura bideratzeko eta bitartean, beka bat jasoko zuen.

Ekintzailtza proiektua surf tauletan oinarritzen zen, taula jasangarri eta eraginkorakoak ekoiztea ahalbidetuko zuen teknologiaren garapenean, hain zuzen. 22/23 ikasturtean Mondragon Unibertsitateko Galarretako campuseko laborategietan aritu zen buru belarri prototipoak fabrikatzen, kalkuluak egiten, simulazioak egiten, materialak probatzen etab. Bertan ekoiztu zuen, nagusiki, uretan lehen aldiz probatu ahal izan zuen berak ekoiztutako surf taula. Ilusioz gogoratzen duen eguna da, lagunekin bizi izandako

momentu berezi hura; Egoitzen hitzetan “ikaragarria izan zen nik ekoiztutako taulan surfa egitea, nik eta lagunek ere, oso ilusionagarria izan zen”.

Surflarien ekarpenekin hobetu

Uretan emaitza onak lortu bazituen ere, hobetzeko aukerak identifikatu zituen eta, beraz, hilabete batzuetan fabrikazioa alde batera utzi eta Bizkaiako hondartzetan barrena surflariak elkarrizketatzen aritu zen beraien nahi, interes eta espektatibak sakontasunez ezagutzeko. Izan ere, surf taula baten ekoizpen prozesua oso delikatu da eta aldaketa txiki batek eragin handia sor dezake, beraz prozesu hori gehiago landu eta hobetu beharra ikusi zuen.

Azterketa sakon horren ondoren, berriro ere ekoizpena martxan ipintzeko garaia zen eta aukera bat eman zen Sarturtziko La Nautica eskolan. Han ekintzailtza teknologikoko proiektuetarako tailer eta bulegoetan lekua hartu zuen. Proiektua indarra hartzen joan zen eta partaide berriek bat egin zuten proiektuarekin. Instagram eta webgunearen bitartez taulak gizartearen aurkezten ere hasi ziren eta maila altuko surflari batzuk GURA proiektuan interesa erakutsi zuten.

Epe motzera GURA proiektuaren helburuak honakoak dira: Maila altuko surflariei taulak ekoiztea; Euskal surft zirkuituan GURA taula batek parte hartzea; eta Enpresa ofizialki errealitate bihurtzea.

Helburu hauetan buru belarri dabilan taldea, eta bereziki Egoitz. Beraz, animo talde eta ea proiektuak aurrera egiten jarraitzen duen, zorte on!

GURA taulek bereizgarritasunak

TAULA AZKARRAGOAK. Fluidoko konputazionalen teknologiaren bitartez taula azkarragoak diseinatzen dituzte, taulak surfeaturako diren baldintzetara hobeto egokituz.

INPAKTUAREN XURGAPENA. POWER RIB teknologia garatu dute eta ondorioz taulak olatuarekin egiten duen talkaren energia xurgatzen du, taularen biziraupena handituz.

JASANGARRIA. Oinarri biologikoa duen ahalik eta material gehien erabiltzen dute, nukleoaren %80a birziklatutako materialekin egiten da.

LEINN Graduko bost ekintzaile Forbesko aldaketarako eragileen zerrendan

TALDE HORRETAN, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA GRADUKO (LEINN) BOST EKINTZAILE AIPAGARRITZAT HARTU DITU FORBESEK. HORIETAKO HIRU EMAKUMEAK DIRA.



Enpresagintza Fakultatea | Forbes aldizkari ospetsuak errealitatea eraldatzea eta gizartea etorkizun oparago baterantz bideratzen duten 24 profesional hautatu ditu. Lider horiek, emakume zein gizonek, disrupzioaren elitea lortu dute, beren talentuari, lidergo trebetasun eta enpresa esparruan aitzindariak diren ekarpenei esker.

Ane Fernandez de Arbinak (Gasteiz), Metxa proiektuaren azeleragailutik eta YouKast startupetik igaro ondoren, Test4Safe sortzea erabaki zuen. Edarietan sumisio drogak detektatzen dituen zerrenda erreaktiboa garatu du, erasoak prebenitzeko. Fernández de Arbinak nabarmendu du garrantzitsua dela biktima izan daitezkeenei laguntza ematea eta erasotzaile potentzialak mugei eta elkarrekiko errespetuari buruz hezteko eta kontzientziatzeko beharra.

Marta Maneja (Bartzelona) eta Hernán Hernandez (Jaca) GLOOPen sortzaileak dira. GLOOP mahai-tresneria jangarriaren marka da. Koilarak, kafe-irabiagailuak eta lastotxo jangarriak eskaintzen dituzte, eta, erabili ondoren, galleta bat balira bezala kontsumi daitezke. Hauen proposamenak, %100 biodegradagarria denak, kontsumitzailearen esperientzia hobetzen du eta indarrean dagoen legedia betetzen du.

Iñigo Monreal (Gasteiz) eta Maria Jara (Eskoriatza) SMALLOPS ekimenaren sortzaileak dira. Nanoteknologiaren bidez klima aldaketari aurre egiteko irtenbide berritzaileak bilatzen ditu ekimen horrek. Ekoizpen kostu txikiko metodoari esker, nanopartikula horiek hainbat jardueratan erabili daitezke, hala nola uren tratamenduan, biogasaren ekoizpenean eta ongargi gisa.

Xabier Retegik 'Horizontes de esperanza' liburua aurkeztu du

ESKORIATZAKO CAMPUSEAN EGINDAKO AURKEZPENEAN, XABIER RETEGIK LAGUN IZAN ZITUEN NAGORE IPIÑA HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEK FAKULTATEKO DEKANOA ETA AINARA UDAONDO LANKI KOOPERATIBISMOAREN IKERTEGIKO ZUZENDARIA.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Xabier Retegi Ayastuiren, Eusko Ikaskuntzako ohorezko lehendakariaren, liburu berriaren aurkezpena hartu du; *Horizontes de esperanza. Una visión comunitaria para la sociedad vasca* du izenburu. Aurkezpen ekitaldia Fakultateko liburutegian egin zen otsailaren 16an; Nagore Ipiña fakultateko dekanok aurkeztu zuen ekitaldia eta Ainara Udaondo LANKI Kooperatibismoaren Ikertergiko zuzendariak elkarriketatzaile lanak egin zituen.

Erakundeen zabaltasuna eta aniztasuna euskal gizartearen ezaugarrietako bat da, eta heldutasunaren eta antolatze gaitasunaren frogaz sendoa. Sendotasun horrek tresna baliotsuak ematen dizkio herriari barne desorekei eta etorkizuneko erronka handiei aurre egiteko. Baina, aldi berean, egitura horietako asko gaur egungo oso bestelako garai eta inguruabarretan sortu ziren, eta zaharkituta geratu dira edo gaur egun ez dira eraginkorrak.

Retegiren iritziz, zatiturik dagoen botere politikoaren, bere kasa dabilen botere ekonomikoaren eta botere komunitario atomizatu eta prekararioaren baturak ez du "sistema" bat eratzten.



Xabier Retegiren aurkezpena.

Hori lortzeko, oinarri demokratikoak abiapuntutzat hartuta, herriaren ikuspegi eta proiektio estrategiko bat partekatu beharko lukete hiru botereek arlo politikoan, ekonomikoan eta sozialean. Xabier Retegik XXI. mendeko errealitate berriekin bat datorren "etika komunitario" bat ezartzearen alde egiten du liburuan, pertsona euskal gizarte antolakuntzaren erdigunean jartzeko berriz ere. Hau da, pertsona euskal gizarte antolakuntzaren erdigunean jarriko duen gizarte eredu humanista behar dela proposatzen du egileak.

Garapen komunitarioan inplikatzeari Horretarako, beharrezkoa da bakoitzak dagozkion erantzukizunak bere gain hartzea, garapen komunitarioan inplikatzeari eta nahi dugun gizarte eraikitzen laguntzea, erabakimena beste batzuen eskuetan utzi gabe.

Xabier Retegi Aiastuik (Bergara, 1937), bere ibilbide profesionalean, hezkuntza eta kultura ekintzak enpresa kudeaketarekin eta erantzukizun politikoekin tartekatu ditu. Beste kargu askoren artean, Retegi Arrasateko Eskola Politeknikoko zuzendaria izan zen 1962 eta 1975 bitartean, eta Mondragon Unibertsitateko errektorea 1999 eta 2002 bitartean.

Alumni

Distira egiten duten izar berriak

BASQUE CULINARY CENTERREKO BOST IKASLE OHIK LEHEN MICHELÍN IZARRAK ESKURATU DITUZTE 2023KO GALAN



Santiago Fernández Saim, MAZ Tokyo jatetxeko sukaldaria.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Estatuko gastronomía eszenak inoiz baino distira handiagoa du, jatetxe izarren kopuruak gora egiten jarraitzen baitu. Michelin España 2023 Gidaren aukeraketak 272 jatetxe eta izar nabarmendu ditu. Horien artean, Basque Culinary Centerreko ikasle ohien ordezkari handia dago. Adibidez, Carlos Casillas, Barro jatetxekoa, Michelin izar bat lortu duen inoizko chef gazteena bihurtu da, eta bere probintziarako, Avilarako, lortu duen lehena. Horrez gain, Izar Berde bat lortu du, Jaime Mondejar Basque Culinary Centerreko ikaslearekin batera.

Bestalde, Jaengo Vandelvira Jatetxeko Juan Carlos Garciak bere Michelin Izarra eskuratu du, eta Jose Maria Goñi graduatuak, Martin Berasateguiren Allard Klubeko Sukalde buruak, ere bat egin du Estrella Michelin klubarekin. Walter Sidoraviciousek, Gastronomía Zientzien Fakultateko Masterreko ikasle ohiak, ere izarra bereganatu du Omakase by Walt-en chef gisa egiten duen lanari esker.

Zorionak guztie! Talentu gaztearen, bikaintasunaren eta bilakaeraren lorpen eta adibide bikaina da. Arrakasta izaten jarraituko duzuela espero dugu!

Nazioarteko izarrak

Bestalde, Santiago Fernández Saim ikasle ohia izan da Japoniako MAZ Tokyo jatetxearekin bi Michelin izar lortu dituen lehen chef venezuelarra. MAZ Tokyon kokatutako proiektu gastronomiko berri a da, Virgilio Martínez chef eta Peruko Central-eko zuzendariak eta Mater Initiative-k sortua.

MAZek bidaia gastronomiko berri bat proposatzen du, Peruko lurraldearekin lotura sakona duen esperientzia batean oinarrituta. Santiago Fernández operazioen buru da. Azken bost urteetan Mater-eko kide izan eta Central-eko sormen programaren arduradun izan ondoren, Santiago Virgiliorekin hasi zen lanean, Basque Culinary Centerren Gastronomian eta Sukaldaritzan Arteetan graduatu ondoren. Harrezkero, Virgilioren eskuineko esku gisa, nazioarteko hainbat ekitaldi gastronomikotan parte hartu du.

Jardunaldiak

Apirilak 17 / Bilboa AS Fabrik.
Mintegia: Garaiko erronkei begira
humanitateetatik: Hiri etikoak
12:00h

Apirilak 25/ Bilboa AS Fabrik.
“Inteligencia Artificial y
Educación: construyendo
puentes” liburuaen aurkezpena
17:00h

**Maiatzak 9/ Eskoriatzako
campusa.**
KoLaborategiko topaketa:
STEMotiv proiektuka
16:30h

**Maiatzak 23/ Bilbao Berrikuntza
Faktoria (BBF)**
Mintegia: erraztaile profila
hezkuntzan
15:00-18:00h

**Maiatzak 23/ Eskoriatzako
campusa**
Jardunaldia: GipuzkoHarrok
proiektuak
18:00h

**Ekainak 6 / Aretxabaletako
kultur-etxea**
Euspot euskarazko spot
lehiaketaren sari banaketa
19:00h

**Ekainak 7 / Aretxabaletako
campusa**
Ikus-entzunezko Komunikazioa
graduako Gradu Bukaerako Lanen
aurkezpen publikoa
08:00-14:00h

Ekainak 7 / Bilboa AS Fabrik
Humanitate Digital Globalak
graduako Gradu Bukaerako Lanen
aurkezpen publikoa
08:00-14:00h

**Ekainak 11 / Eskoriatzako
campusa**
Kooperatibagintzan topaketa
2024
14:00-19:00h

Abril

Facultad de Empresariales

- EXPERTO ONLINE EN DISEÑO DE ALIANZAS OPERATIVA abril 2024

Escuela Politécnica Superior

- AGILE PROJECT MANAGEMENT. 8/4/2024
- PROJECT MANAGEMENT 8/4/2024
- ANÁLISIS, VISUALIZACIÓN DE DATOS Y CONSTRUCCIÓN DE MODELOS CON R 15/4/2024
- PROGRAMACIÓN ROBOT INDUSTRIAL ABB INICIACIÓN 15/4/2024
- PDU: CLAVES PARA EL DESARROLLO DE UN WORK BREAKDOWN STRUCTURE (WBS) 15/4/2024
- DESIGNACIÓN DE ACEROS 15/4/2024
- CIBERSEGURIDAD: MECANISMOS DE PROTECCIÓN Y DEFENSA 15/4/2024
- ACEROS: CONCEPTOS GENERALES Y TRATAMIENTOS TÉRMICOS 15/4/2024
- SISTEMAS DE GESTIÓN DE LA SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN 15/4/2024
- PDUS: HERRAMIENTAS DE CALIDAD PARA LA GESTIÓN DE PROYECTOS 15/4/2024
- CIBERSEGURIDAD CORPORATIVA GRC (GOBIERNO, RIESGOS Y CUMPLIMIENTO) 15/4/2024
- EJECUTIVO DE CIBERSEGURIDAD CORPORATIVA GRC 15/4/2024
- ELIMINACIÓN DE VIBRACIONES EN EL FRESADO 16/4/2024
- DEMAND DRIVEN WEEK - CLAVES DE LA EMPRESA ALINEADA A LA DEMANDA (DDAE): CÓMO CONSEGUIR LA RENTABILIDAD A TRAVÉS DE LOS INDICADORES 16/4/2024
- GESTIÓN DE OPERACIONES INDUSTRIALES 16/4/2024
- DEMAND DRIVEN WEEK - DESCUBRIR EL DDMRP MEDIANTE DDBRIX DISTRIBUTION 17/4/2024
- DEMAND DRIVEN WEEK - DESCUBRIR EL DDMRP MEDIANTE DDBRIX DISTRIBUTION 18/4/2024
- CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN PATENTES EN EL ÁMBITO DE LA EMPRESA 19/4/2024
- NORMATIVA DE CIBERSEGURIDAD PARA VEHÍCULOS UNECE/R155 22/4/2024
- NORMATIVA DE CIBERSEGURIDAD PARA VEHÍCULOS UNECE/R155 22/4/2024
- CIBERSEGURIDAD EN LAS FLOTAS DE VEHÍCULOS 22/4/2024

GRADOS

www.mondragon.edu/muplu

MÁSTERES UNIVERSITARIOS

www.mondragon.edu/muplu

FORMACION PARA PROFESIONALES

www.mondragon.edu/muplu

OTROS

Mayo

Escuela Politécnica Superior

- WORDPRESS: CREACIÓN DE PÁGINAS WEB 6/5/2024
- DISEÑO Y DIMENSIONAMIENTO DE MECANISMOS LEVA-SEGUIDOR 7/5/2024
- ACEROS INOXIDABLES: CURSO COMPLETO 14/5/2024
- METROLOGÍA: TOLERANCIAS DIMENSIONALES, SUPERFICIALES Y GEOMÉTRICAS 14/5/2024
- ACEROS INOXIDABLES: METALURGIA Y CRITERIOS DE DISEÑO ANTICORROSIÓN 14/5/2024
- PROGRAMACIÓN ROBOT INDUSTRIAL ABB EXPERTO 15/5/2024
- VISIÓN ARTIFICIAL EN LA ROBÓTICA INDUSTRIAL 15/5/2024
- LA MEJORA CONTINUA EN LAS ACTIVIDADES DE MANTENIMIENTO 15/5/2024
- PROJECT MANAGEMENT.ADVANCED 20/5/2024
- FABRICACIÓN ADITIVA DE METALES PARA PROFESIONALES 20/5/2024
- ACEROS INOXIDABLES: PROCESABILIDAD 21/5/2024
- FIABILIDAD DE MÁQUINAS E INSTALACIONES. RCM 22/5/2024
- FIABILIDAD DE MÁQUINAS E INSTALACIONES. RCM 22/5/2024

Junio

Escuela Politécnica Superior

- HIDRÁULICA 4/6/2024
- LA LUBRICACIÓN Y LA FIABILIDAD DE LAS MÁQUINAS E INSTALACIONES 5/6/2024
- CÓMO MEJORAR LA PRODUCTIVIDAD DE TU EMPRESA A TRAVÉS DE HERRAMIENTAS WEB 6/6/2024

Facultad de Empresariales

- EXPERTO ONLINE EN GOBIERNO Y GESTIÓN ESTRATÉGICA DE DATOS: 6/ 2024

Julio

Escuela Politécnica Superior

- EL MANTENIMIENTO Y LOS SISTEMAS INTEGRADOS DE GESTIÓN 3/7/2024

Octubre

Escuela Politécnica Superior

- MASTER PROFESIONAL EN SOLDADURA (IWE/IWT), ROBÓTICA E INSPECCIÓN DIGITAL
- MASTER DE FORMACIÓN PERMANENTE EN FABRICACIÓN ADITIVA INDUSTRIAL
- MASTER DE FORMACIÓN PERMANENTE EN CIBERSEGURIDAD
- MASTER INTERUNIVERSITARIO DE FORMACIÓN PERMANENTE EN TECNOLOGIAS DEL HIDROGENO

Facultad de Empresariales

- MÁSTER UNIVERSITARIO EN DIRECCIÓN CONTABLE Y FINANCIERA
- MÁSTER UNIVERSITARIO EN MARKETING DIGITAL
- MÁSTER UNIVERSITARIO EN INTERNACIONALIZACIÓN DE ORGANIZACIONES
- MÁSTER UNIVERSITARIO EN GESTIÓN ESTRATÉGICA DEL TALENTO DE PERSONAS - MTALENT
- MÁSTER UNIVERSITARIO EN ANÁLISIS DE DATOS PARA LA INTELIGENCIA DE NEGOCIO / BUSINESS ANALYTICS
- MÁSTER UNIVERSITARIO EN EMPRENDIMIENTO E INNOVACIÓN ABIERTA

Ibili munduan 0 komisio ordainduta*.



EZ du komisiorik Estatu osoko
10.000tik gora kutxazainetan*.

EZ du komisiorik LABORAL Kutxaren
aldetik atzerriko kutxazainetan**.

EZ du komisiorik
dibisa aldatzeagatik.

*Zure probintzian dirua ateratzeko, LABORAL Kutxaren kutxazain-sarea duzu; zure probintzietatik kanpo, berriz, entitate hauetako kutxazainak erabil ditzakezu: Caja Rural, Cajamar, Bankinter, Caja de Ingenieros, Cashzone, Deutsche Bank, Arquia Banca, Euro Automatic Cash eta Euronet WorldWide. **LABORAL Kutxak ez du komisiorik kobratuko atzerriko kutxazainetan. Kutxazainaren jabeak komisio bat ezar lezake kutxazaina erabiltzeagatik (LABORAL Kutxak ez).

Abantaila horietaz baliatzeko, LABORAL Kutxaren bezero izan behar duzu, 18 eta 29 urte bitartekoa (biak barne), eta Bizum aktibatuta eduki behar duzu entitatearekin.



LABORAL
kutxa